

Familia eredu berriak

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Garai batean familia oso kontzeptu itxia zen; oro har; aita, ama eta seme-alabak osatutako elkarbizitza taldea, alegia. Urteak joan urteak etorri, ordea, kontzeptu hori askoz ere malguagoa da, eta zaila egiten zaigu xehetasunez definitzea familia zer den. Familia-eredu berriei buruz hitz egingo dugu lanketa honetan. Horretarako, Ana Irene del Valle soziologoaren azalpenak izango ditugu oinarri.



1- Zer dira familia eredu berriak?

Ana Irene del Valleri egindako elkarrizketaren bideoa ikusi eta egia/gezurra motako galdeetan erantzun.

	Egia	Gezurra
Familiaren definizioa oso zehatza da, argi dago.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Familia-eredu berrien aldaketa egituran dago.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
2005. urtean sexu berekoen arteko ezkontza onartu zen Hego Euskal Herrian.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Familiak hautsi eta kideak berriro beste batzuekin elkar daitezke.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
1990eko eta 2013ko adin guztietako diskurtsoak, ibilbideak... alderatu ditut.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Familia beti elkarrekin bizi den pertsona-multzoa da.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
XX. mendean emandako definizioek familia bat osatzeko, sexu ezberdinetakoak izan behar zutela aipatzen dute.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Familia tradizioetik eta erakunde bat izatetik urrundu da.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

2- Testua osatu

Laburpen-testua irakurri eta bertan falta diren aditz laguntzaileak jarri.

Beti esaten **du / da / zaio** familia ez **dela /ditugula / dugula** guk aukeratzen, bakoitzari bat egokitzen zaigula, eta hor ez **duela / direla / dagoela** zereginik. Aldatzea ezinezkoa da, edo ia ezinezkoa. Azken bolada honetan familiaren egitura aldatu egin **da / zaio / zen** , eta gero eta kontzeptu zabalagoa bihurtu.

Gure aitona-amonon garaian, familia tren baten antzekoa **zuen / zen / da** : bidean geltoki jakin batzuk **zuen / zituen / zitzaien** (ezkontza, seme-alabak, elkarbizitza...), eta guztiek ibilbide bera egin behar **ziren / zituzten / zuten** . Garai hartan, bidea zuzena zen, eta bazekiten geltokiak zein **ziren / zituen / zuten** . Gaur egun, berriz, labirinto batean bizi **ginen / dugu / gara** , eta ez dago trenbide zuzenik. Familiaren zikloa apurtu egin da, eta hainbat ibilbide atera **dira / ziren / gara** : hartara, bakoitzak berea aukeratu behar **dio / zaio / du** .

Beraz, familiak hainbat definizio dituela esan dezakegu. Elisabeth Beck-Gernsheim alemaniar soziologoak mugarik gabeko paisaia bat bezala irudikatzen zuen, eta berriro formulatzen hasiko zela aurreikusi **zaio / dio / zuen**.

Familiari buruz, eta zehazki egitura berriei buruz hitz egiteko, Ana Irene del Valle soziologoarekin elkartu gara, Bilbon. Bera Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslea da, eta, gai honekin lotura zuzena **diren / duen / zuen** ikasgai bat irakasten du.

3- Guraso bakarreko familia

Jarraian ikusi EITBko *Ur Handitan* saiotik ateratako elkarrizketa hau. Bertan, intseminazio artifizialaren bidez haurdun gelditu zen Argider Mujikak bere esperientzia kontatu du. Ikusi eta erantzun ondorengo galderak aukera zuzena hautatuz.

1- Hasieran jende asko hurbildu zitzaion umea ikustera...

- umeak hiru beso zituelako.
- ume arraroa izango zela pentsatzen zutelako.
- umea beste arraza batekoa zelako.

2- Argiderrek esan du...

- bere bikoteak ez zuela aita izateko gogoia.
- ez zela inoiz oso umezalea izan, baina adin batean garaia heldu zitzaiola.
- betidanik izan zituela ama izateko gogoia.

3- Norbaitekin umea izateko bakarrik elkartzea...

- a) ez zaio ondo iruditzen, harreman horrek iraungitze data laburra daukalako.
- b) izan zen bere lehenengo aukeretako bat.
- c) ama izateko bide arruntena da.

5- Argiderrek esan du...

- a) umeek askotan galdetzen diotela haien aitaz.
- b) kanpoko jendeak ez diola inoiz galdetzen umeen aitaz.
- c) kanpoko jendea kezkatuago agertzen dela aita ez izateagatik umeak baino.

4- Umea adoptatzeko aukera...

- a) aztertu zuen hasieran, baina baztertu zuten baldintzak betetzen ez zituelako.
- b) baztertu zuen, bide garestia eta luzea delako, eta adopzio gehienak nazioarteko umeenak direlako.
- c) ona da guraso bakarrentzat, errazago adoptatu ditzaketelako nazioarteko umeak.

6- Argiderrek egin zuena...

- a) beste garai batean ez zen posible egitea, posible izan balitz emakume gehiagok egingo zuen.
- b) adineko jendeak batez ere egin dezake, orain errazagoa delako.
- c) errazagoa zen garai batean gaur egun baino, inor enteratzen ez zelako.



ERANTZUNAK

1- Zer dira familia eredu berriak?

	Egia	Gezurra
Familiaren definizioa oso zehatza da, argi dago.	<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>
Familia-eredu berrien aldaketa egituran dago.	<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>
2005. urtean sexu berekoen arteko ezkontza onartu zen Hego Euskal Herrian.	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>
Familiak hautsi eta kideak berriro beste batzuekin elkar daitezke.	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>
1990eko eta 2013ko adin guztietako diskurtsoak, ibilbideak... alderatu ditut.	<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>
Familia beti elkarrekin bizi den pertsona-multzoa da.	<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>
XX. mendean emandako definizioek familia bat osatzeko, sexu ezberdinetakoak izan behar zutela aipatzen dute.	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>
Familia tradiziotik eta erakunde bat izatetik urrundu da.	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>

2- Testua osatu

Beti esaten **(da)** familia ez **(dugula)** guk aukeratzen, bakoitzari bat egokitzen zaigula, eta hor ez **(dagoela)** zereginik. Aldatzea ezinezkoa da, edo ia ezinezkoa. Azken bolada honetan familiaren egitura aldatu egin **(da)**, eta gero eta kontzeptu zabalagoa bihurtu.

Gure aitona-amonon garaian, familia tren baten antzekoa **(zen)**: bidean geltoki jakin batzuk **(zituena)** (ezkontza, seme-alabak, elkarbizitza...), eta guztiek ibilbide bera egin behar **(zuten)**. Garai hartan, bidea zuzena zen, eta bazekiten geltokiak zein **(ziren)**. Gaur egun, berriz, labirinto batean bizi **(gara)**, eta ez dago trenbide zuzenik. Familiaren zikloa apurtu egin da, eta hainbat ibilbide atera **(dira)**: hartara, bakoitzak berea aukeratu behar **(du)**.

Beraz, familiak hainbat definizio dituela esan dezakegu. Elisabeth Beck-Gernsheim alemaniar soziologoak mugarik gabeko paisaia bat bezala irudikatzen zuen, eta berriro formulatzen hasiko zela aurreikusi **(zuen)**.

Familiari buruz, eta zehazki egitura berriei buruz hitz egiteko, Ana Irene del Valle soziologoarekin elkartu gara, Bilbon. Bera Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslea da, eta, gai honekin lotura zuzena **(duen)** ikasgai bat irakasten du.

3- Guraso bakarreko familia

1- Hasieran jende asko hurbildu zitzaion umea ikustera...

- b) ume arraroa izango zela pentsatzen zutelako.

3- Norbaitekin umea izateko bakarrik elkartzea...

- a) ez zaio ondo iruditzen, harreman horrek iraungitze data laburra daukalako.

5- Argiderrek esan du...

- c) kanpoko jendea kezkatuago agertzen dela aita ez izateagatik umeak baino.

2- Argiderrek esan du...

- c) betidanik izan zituela ama izateko gogoia.

4- Umea adoptatzeko aukera...

- b) baztertu zuen, bide garestia eta luzea delako, eta adopzio gehienak nazioarteko umeenak direlako.

6- Argiderrek egin zuena...

- a) beste garai batean ez zen posible egitea, posible izan balitz emakume gehiagok egingo zuen.